

VISIT-BIZI. DONOSTIAKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANA 2023-2027

**Turismo Jasangarriaren Plan Zuzentzaile berriak donostiarren
bizi kalitatea du abiapuntu.**



- Hiriaren oparotasuna eta donostiarren ongizatea sustatu nahian, Donostia Turismoak bizi kalitatearen eta bisiten kalitatearen alde egiten du, bisitari kopuruaren alde egin beharrean
- 2023-2027ko Visit-Bizi Plana aurreko turismo planaren jarraipena da, baina, oraingoan, hiriaren kudeaketan jarri du arreta jomuga turistikoa gisa; eta, horretarako, zeharkako ikuspegia, ibilbide orri argi bat eta herritarren, bisitarien eta sektorearen arteko oreka sustatzeko neurriak hartu ditu oinarritzat
- Plan hau profil oso teknikoa duten pertsona askoren ahaleginari esker prestatu da: adituei esker, sektoreko profesionali esker, alderdi politiko guztiei esker, herritarrei esker eta tokiko 325 ETE elkartuak dituen Donostia Turismoari esker, hain zuzen ere
- Planaren aurkezpen ofiziala Chillida Lekun egingo da goiz partean, turismo jarduerarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten eragileei zuzendutako ekitaldi batean; eta arratsalde partean Aquariumean, herritarrei zabalik egongo den beste ekitaldi batean. Bi ekitaldietan mahai inguru bat egingo da, non estatuko eta nazioarteko adituek parte hartuko baitute, turismoaren garapen jasangarriaren gainean hausnartzeko.

Donostia / San Sebastián, 2023ko azaroaren 3an

Azken urteotan, Donostiako turismo sektorean eragina duten aldaketa sakonak gertatu dira mundu osoan, eta beharrezkoa da hainbat **erronka** garbitzea, besteak beste: koronabirusak ekarri zuen krisia gainditu, turismo jarduera eta turismo jomugaren **garapen jasangarria** elkarrekin lerrokatu, **klima-larrialdia** kudeatu eta **hiriaren oparotasunari** eta herritarren **bizi kalitateari** eustea.

Hori dela eta, **Donostia Turismoak** Turismo Jasangarriko Plan baten alde egin du; horretarako, badu **zeharkako ikuspegi** bat, hiriko Plan Estrategikoarekin eta Ingurumen Planarekin **lerrokatu** dagoena. Plan hau aurreko turismo planaren jarraipena da, baina, **jasangarritasuna eta partaidetza** oinarri hartuta, arreta handiagoa jartzen du hiriaren kudeaketan jomuga turistikoa gisa.

Eneko Goia Donostiako alkatearen hitzetan, *"Entzuten dugu. Jakin badakigu zenbait donostiarrentzat turismoak eragozpenak eta deserosotasunak sortzen dituela. Horregatik, Udalak turismo - jarduera eta herritarrei eman beharreko arreta uztartzen dituzten lege-esparruak sortzen jarraituko du. Erronka erraldoia da: hirian garrantzitsua eta pisu handia duen aktibitate ekonomikoa ondo kudeatzea, baina donostiarren bizi-kalitatea erdigunean jarriz, beraien bizitzarekin eta auzoarekin gustura egon daitezen. Turismo jasangarria defendatzen dugu. Edo agian egokiagoa litzateke esatea, "arrazoizko turismoa". Hiriak digeritu edo bere gain hartu dezakeen turismoa, partekatze eta elkarrekin bizitzeko egokia izango den turismoa".*

PLAN HONEN HELBURUAK:



Jon Insaustik, Kultura, Euskara eta Turismoko zinegotziak, azpimarratu du beharrezkoa dela *"oreka lortzea ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-alderdien artean. Turismoak bertako enpresentzat errentagarria izan behar du, baina donostiarren egunerokotasunarekin bateragarria ere, ingurumenean inpaktu txikiarekin sortuz. Horregatik, turismo behatoki bat sortuko dugu, datuetan oinarritutako erabakiak hartu ahal izateko eta eredu jasangarri bat sustatu ahal izateko. Sektorearen lehiakortasuna handitzen eta hiriko bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen eredu, hain zuzen ere".* Eta, hitzaldia amaitzeko, hurrengo nabarmendu du: *"gure nortasuna eta ondarea gure sustraien parte dira, eta hori da bereizten gaituena. Bisitatzen gaituztenei, hiri donostiarrek bezala bizitzera gonbidatzeko aukera dugu, jasangarritasunetik eta errespetutik".*

Visit-Bizi Turismo Jasangarriaren 2023-2027 Plana, profil oso teknikoa duten pertsonen eta erakunde kolektibo zabal baten ahaleginari esker atera da aurrera, beren esperientziak, ezaupideak eta ikuspegiak ematerakoan ekarpen handia egin dute eta. Prozesuak urtebetetik gorako lana behar izan du eta partaidetza zabal izan da, besteak beste, adituek, sektoreko profesionalak, alderdi politiko guztiek, herritarrek, Donostia Turismoak eta bere tokiko 325 enpresa elkartuak (enpresa txiki eta ertainak gehienak) hartu dute parte.

Donostiarren iritzia ere kontuan hartu da: **% 85ek** uste du turismoa **elementu global onuragarria** dela herritarrentzat, eta **% 70ek** uste du turismoak hiriaren **garapen ekonomikoari egiten dion ekarpena** eta garrantzia aintzat hartzekoak direla. Ez da ahaztu behar, halaber, gure hiriak hiri turistiko eta hiri erakargarri bihurtzeko XIX. mendean egin zuen apustuari esker eta bi mendeko bere turismo tradizioari esker, gaur egun bizi-bizirik dagoen hiri bat dugula, **azpiegitura askorekin** eta hiri handien pareko **kultura-eskaintza** oparoarekin.

Turismoa ekarpen gehien egiten duen sektoreetako bat da: hiriko **BPGaren % 13,9** da (**1.065 milioi euro**) eta **15.000 enplegu** baino gehiago sortzen ditu. Gainera, **kongresu eta biltzar** turismoaren bidez, gure industria-, enpresa- eta I+g+b sarea dinamizatzen laguntzen du, **talentua eta berrikuntza** erakarriz eta gure hiria nazioartean kokatuz.

Industria deslokalizaezina da, eta bisitarien gastua **tokiko ekoizpen sistema osora iristen da**. Turismoa sarritan ostalaritzarekin eta ostatu sektorearekin lotzen bada ere, Donostiako hainbat eta hainbat sektoretan eragin handia du, dela zuzenean dela zeharka: museoak, dendak, turismo gidariak, ikerketa-zentroak, ospitaleak, nekazaritzan abeltzaintzan eta arrantzan aritzen diren langileak, eta abar, eta abar.




Hala ere, donostiarren **% 65en** iritziz, **turismo muga dagoeneko jo dugu**, eta **errealitateak argi erakusten du zerbait egin behar dela**: azken 5 urteotan 30 hotel baino gehiago zabaldu dira, bisita gidatuek eta free tourek nabarmen egin dute gora, turismoaren presioa nabarmen igo da hiriko hainbat lekutan: Alde Zaharrean, Erdialdean, Portu inguruan, Gros auzoan, e.a.

Horregatik, plan honen helburua **turismo jasangarriko eredu** bat garatzea da, lehentasuna turismoaren **kalitateari** emateko, turisten kopuruari eman ordez, hori guztia publiko estrategikoak erakarriz, espazio publikoa arautuz eta hiriaren nortasuna indartzuz.

Eta 5 ardatz nagusitan oinarrituta, zer turismo interesatzen zaigun eta zein ez definitzen du.

IKUSPEGI BERRI BAT
Honetan oinarritua

KALITATEA - KANTITATEAREN gainetik
OPAROTASUNA - ERRENTAGARRITASUNAREN gainetik
SLOW IKUSPEGIA - AZELERAZIOAREN gainetik



01 JASANGARRITASUNA
Soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa.

02 OREKA
Hiritarren, bisitarien eta enpresen artean.


03 KALITATEA
Kalitateko bisitza, bisita eta hiria.

04 BENETAKOTASUNA
Nortasuna eta kultura, euskara eta tradizioak, berezitasuna.

05 PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA
Hiritarrak, bisitariak, sektore publikoa, sektore pribatua.

Interesatzen zaizkigun bisitariak hauek dira: gure jomuga turistikoa sakon ezagutu, gure hiriaren muina ulertu eta ingurumena errespetatuz bertoko jendearekin bizi nahi dutenak; bisitaldi balioetsuak sortzen dituen eta hirian presio txikiagoa eragiten duen balio erantsi handiko turismoa; gure merkatu estrategikoak jatorri dituzten bisitariak (tokiko merkatua, eskualdekua, estatukoa, Frantzia, Uk, Irlanda, Alemania, Italia, Belgika, Herbehereak, Europa Iparraldeko Herrialdeak, AEB, Kanada, Mexiko, Japonia edota Korea).

Aldiz, jendetza-turismoa **ez zaigu interesatzen** (bidaia-itsasontziak; festa-, mozkorraldi, eguzki eta hondartza-turismoa); gurera egokitzen ez diren eta beren ohituretara egokitu gaitzela eskatzen diguten bidaiariak, tokiko esperientziak alde batera utzita; ezta hiria kolapsatu eta bertokoekin ia kontakturik izan gabe igarotzen diren talde handiak eta iragankorrak ere.



Gainera, helburuak lortzeko **ibilbide orri** oso zehatz bat definitu da, hurrengo puntuetako bakoitzari buruzko **neurri espezifikoak** barne hartzen dituena.

1. **Ostatu sektorea arautzea**
2. **Bisitaldiak urte osoan eta lurralde osoan zehar banatzea**
3. **Hirian mugikortasuna eta bisitarien etorrera hobetzea**
4. **Alde Zaharra, Ekialdeko Erdigunea, Portua eta Gros bereziki zaintzea**
5. **Gure kultura eta nortasuna propioa, jatortasuna, gordetzea**
6. **Euskararen, gure hizkuntzaren balioa azpimarratzea**
7. **Sustapen masibotik urrundu, publikoak segmentatu eta merkatu estrategikoak hautatzea**
8. **Teknologia herritarren zerbitzuan jartzea**
9. **Parte hartzea eta lankidetzaren sustatzea**
10. **Bisitarietarako zergak sortzea, herritarren onurarako**
11. **Jasangarritasuna sustatzeko neurri gehigarriak**

Azkenik, hiriko turismoaren kudeaketa hobetzeko **beren proposamenak** oraindik **partekatu** nahi dituzten herritarrek horrelaxe egin dezakete **Donostia Turismoaren webgunean** dagoen Plan Zuzentzailearen atalean, non planaren laburpen **dokumentua** ere **kontsultatu** ahal izango baitute.

→ Ikus **[Visit-Bizi Turismo Jasangarriaren Plana 2023-2027](#)**

"VISIT-BIZI.Turismo Jasangarriaren Plana 2023-2027"

Turismo Jasangarriaren Plana azaroaren 3an aurkeztuko zaie sektoreari eta komunikabideei, 11:00etan, Chillida Lekun, plan honetan parte hartu duten eragileekin batera egitekoa den ekitaldi batean; eta arratsaldean, 18:00etan, Aquariumean, herritarrei irekita egongo den beste ekitaldi batean.

Eneko Goia Donostiako alkatearen eta Jon Insausti Kultura, Turismo eta Euskara zinegotziaren eskutik egingo den aurkezpenaz gain, bi ekitaldietan mahai inguru bat egingo da, non estatuko eta nazioarteko adituek parte hartuko baitute, turismoaren garapen jasangarriaren gainean hausnartzeko. Hizlariak honako hauek izango dira:

Peter Jordan

Toposhopy-ko Ikerketa Zuzendaria. 10 urtetik gorako esperientzia du joera globalak aztertzen eta joera horiek helmuga turistikoetan duten eragina ikertzen. CityDNA Europako helmuga turistikoaren sare nagusiko aholkularia da eta 30 estrategia- eta ikerketa-proiektu baino gehiago zuzendu ditu mundu osoko hiri eta eskualdeetarako, jasangarritasun estrategiak barne.

María García

Turismo graduko Giza Geografiako irakaslea eta Helmuga Turistikoen Plangintza eta Kudeaketa Masterreko irakaslea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Geografian doktorea, hiru seiurteko ditu ikerkuntzan eta beste bat transferentzian. "Turismoa, Ondarea eta Garapena" ikerketa-taldea zuzentzen du.

Iñaki Gaztelumendi

Iñaki Gaztelumendik 20 urte daramatza turismo sektorean lan egiten helmuga turistikoak kudeatzeko esparrutik, plangintza estrategikoaren esparrutik eta proiektuak garatzeko esparrutik. Gaur egun, Turismoaren Mundu Erakundeko aholkularia da, eta Espainiako hainbat unibertsitatetan kolaboratzailea. Donostiako Turismo Planaren koordinatzailea.

Moderatzailea: Jon Elzo

Neuromarketing.eus & Gura Market_IN taldearen bazkide sortzailea. Turismoaren, industriaren eta nekazaritzako elikagaien sektorean espezializatutako aholkularia.